

## Hernaniko futbol taldeak fin ari dira denboraldi berria prestatzen

3. mailako taldean jende asko aldatu da iaztik. Hasierak markatuko omen du taldearen helburua.



Entrenatzailea jubentilei errietan. Ez hadi pasa Jon!

**B**ederazi dira aurtengoz herrian izango ditugun futbol taldeak (eskola umeenak kenduta, noski). 200 futbolari inguru eta entrenatzaile, mediku, ofizialak eta abar denboraldi berria prestatzen ari dira.

### TALDE BAT GEHIAGO

Iaz zortzi ziren Hernaniko taldeak, baina Zubipe harrobi ona nonbait, eta jubentilean hirugarren talde bat atera behar izan dute.

Gizonezkoetan helduen 2. jubentilean 3, Kadeteen 2 eta haurren talde bat daude. Emakumezkoetan, berriz, bat bakarra.

### ILUSIO HAUNDIA

Zubipeko talde gorena (3. mailakoa), irriki haundiz dago denboraldi berria hasteko. Jokalari asko talde haundiagotara joan dira, eta bigarren taldekoak nahiz berriak sartu behar izan dute ordezko. Itsura batean denboraldi polita egin lezake, baina beste taldeek nolako jendea duten ikusi behar da lenbizi, aukerak neurtzeko.

### DENBORALDI HASIERA

“Hasierak erakutsiko du nora iritsi gitezkeen” esan digu Xabier Lizasok. “Goiko taldearen aspirazioa ondo hasi eta lasai ibiltzea da”.

### ETXEKOAK LANEAN

Entrenatze lanak, bulegoak... ez dira beti xamurrak izaten. Aurreko urteetan aritu den zenbait erretiratu egin da aurtengoz, eta etxeko jendeak hartu du erreleboa. Bertako jendearekin gauzak txukun egitea da erronka berria.

### PARTIDUAK

Futboleko ligak iraila inguruan hasi ohi dira. 3. mailako taldea 3an hasiko da, eta besteak ere halatsu. Ordurarte ordea, ezin ba geldirik egon, eta gaur bertan hasiko dira adiskidantza partiduekin. Zubipen 12:00etan:  
HERNANI-GWENDOLYNE. □

## Atzo su hartu zuen Txirrita kaleko garaje batek

Goizaldeko 3etan kea sumatu orduko bizilagunek kalera irten behar izan zuten. Suhiltzaile, udaltzain eta ertzainek 4ak alderako baretu zuten egoera.



Sustu ederra hartu zuten bizilagunek, kortozirkuituak garajea sutu eta etxea argirik gabe utzi baizuen.

Goizaldeko 3'15etan momentu nahikoa izan zen Txirrita kalean: suhiltzaileak, bizilagunak, udaltzainak, moztutako errepidea, ikustera hurbildutakoak... Garaje batek su hartu zuen.

### KORTOZIRKUITUA

Antza denez 9. garajetik argi indarreko kable lodiak pasatzen dira. Kable horien kortozirkuituak leherketa eragin zuten eta garajeak su hartu.

### BIZILAGUNAK KALERA

Keak ohartarazi zituen bizilagunak suteaz. Garajeko sua etxe osora zabalduko zen beldur 7 eta 9. portaleko bizilagunak kalera irten zuten. Ez ziren bakarrik izan, elkartasuna adieraztera jende dexen-

te inguratu baizen, Yausikatik ohi baino lehenago aterata.-

### SUHILTZAILE, UDALTZAIN ETA ERTZAINAK

Deia jaso orduko joan ziren lanera Donostiako suhiltzaile kamioi bat, Hernaniko udaltzainak eta bi ertzain patruila. Bizilagunak etxetik atera, kalea itxi eta sua itzaltzen aritu ziren goizeko 4'15 aldera arte.

### SUA PIZTU ETA ARGIA ITZALI

Kortozirkuituak etxea argirik gabe utzi zuen, eta bizilagunak linternen laguntzaz joan ziren berriro ohera. Iberdrolako larrialdietarako erretrenari deitu zioten berriro argia jartzeko. □

## bingo londres jokatu zen...

### 3.MAILAKO AURTENGO TALDEA

#### JOKALARIAK

Xabier Plaza  
Imanol Saizar  
Igor Zapiain  
Joseba Barandiaran  
Aitor Flores  
Ibon Insausti  
Arkaitz Bardaji  
Eneko Goia

Beñat Mujika  
Joseba Duran  
Oskar Bereziartua  
Iker Aldalur  
Iker Fernandez  
Edu Fernandez  
Jon Baños  
Iñaki Otxoa  
Eusko Olaiz

Egoitz Pontesta  
Luis Lasa  
Jose Mari Doval

#### ENTRENATZAILEAK

Imanol Garmendia  
Joseja Oiarbide  
Fertxo Cuesta



## Jose Anjel Segura (Kriskitiña dantza taldekoa): “Dantza sueltao suspertzeko zerbait egin beharra dago”

Krskitiña taldean dantza sueltoko bikoteak daude. Gero eta jende gutxiago dabil.



Udaran dantza sueltoko txapelketak nonahi izaten dira. Hernanin ere bada hara eta hona ibiltzen den bikoterik.


**GERO ETA GUTXIAGO**  
Krskitiña dantza taldean, helduetan zazpi eta gaztetxoetan zortzi bikote izatera ere iritsi izan dira. Orain ordea, helduetan bi eta gaztetxoetan hiru besterik ez daude.

**AFIZIOA BEHAR**  
Jose Anjel Seguraren hitzetan, afizio handi behar da dantzan aritzeko “beti hara eta hona, entsaio asko... benetako

afizioa behar da”.

**BITARTEKOAK FALTA**  
“6 metro karratuko gela batean errenditu beharra dugu”. Lokal haundiago bat nahi lukete eta gauzak antolatzeko diru gehiago.

**DANTZALDIAK**  
Hernanin bada dantza sueltao az gozatzeko modurik. San Juanetan txapelketa izaten da, irailaren 24an trikitixa txapelketa egin nahi da 16 urtez azpikoentzat, eta abenduko lehen igandean 14 urterterkoek izango dute aukera. □



**Jose Anjel Segura**  
Krskitiña taldekoa

“Juanito Sarriegik lan haundia egin du Hernanin”

## Donostiako Klasikoa Hernanitik pasa zen

Arratsaldeko 15:10 inguruan (aurrikusita zegoena baino ordu erdi lehenago) pasa zen atzo Hernanitik Donostiako Klasikoa abaila batean.

**GIROA BERTAN**  
Tellerigaindik pasa zirenean (karrerako 165.km) 12 txirrindulari zioazen ihesita eta jende asko zen euripean animoak emanez.

**DECKER TXAPELDUN**  
Donostiako helmugan Erik Decker sartu zen aurrena, 5:15:59ko denborarekin, azken kilometroan pelotoiari aurre hartuta. □



Tellerigaindik etorri,  
Sorgintxulora sartu eta  
Astigarraga aldera jo zuten.

## ■ HITZ BITAN

### ✓ ASTE NAGUSIRAKO GARRAIOAK

Tren eta autobus bereziak jarri dituzte Donostiako festetarako. Aste Nagusian parranda eginez gero Donostiatik trenez lasai etortzerik izango da ordu hauetan: 23:50, 00:30, 1:00, 2:00, 3:00, 4:00. Aietetik barrena doazen autobus urdinak ere ohi baino maizago ibiliko dira: Hernanitik Donostia orduerdiero aterako dira 22:15etatik 1:45etara. Eta Donostiatik (San Bartolome kaletik) Hernanira ere orduerdiero 22:45etatik 2:15etara. □

#### ❖ GOIZUETAKO FESTAK

##### Umeen eguna

- ⇒ 9:00 Diana herriko txistularien bandarekin.
- ⇒ 11:00 Meza.
- ⇒ 12:00 Pelota partiduak.
- ⇒ 17:35 Antzerkia: Colins Clow taldearen “Ongi etorri mendebaldera” lana.
- ⇒ 20:00 Trikitixa: Xapó taldea.
- ⇒ Egun osoan zehar Idoia Beratarbideren marrazki eta oleo erakusketa eskolatarako jangelan.

#### ❖ DONOSTIAKO FESTAK

- ⇒ 19:00 Aste Nagusiaren

hasiera Alderdi Ederren.  
⇒ 20:00 Opera kontzertua: Ainhoa Arteta eta Angel Corella Kursaallean.  
⇒ 22:45 Suak Festes Frantziako etxearen eskutik.  
⇒ 23:30 Sefardi kontzertua: S.Prada eta A.Calero Trinitate plazan.  
⇒ 23:30 Dantzaldia: Zirika orkestra Zuloaga plazan.  
⇒ 23:30 Kontzertua: Tocan Latinos, Ariel Rot, Café Quijano eta Danza Invisible Saguesen.  
⇒ 23:30 Pop-Rock kontzertua: Donostia Hiriako IX. finala Katalunia plazan.  
⇒ 00:00 Dantzaldia: Iratxo taldea Pasealeku Berrian.

### HERIOTZAK

**Patxi Sarasola Goenaga jauna.**

Abuztuaren 11ean hil zen 58 urte zituela.

### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943464622
- 943 335533
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

### ✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: **Correa**  
Antziola, 44  
☎ 943336022
- ▶ Gaeuz: **Tanco**  
Urnieta. San Juan, 36  
☎ 943550942

**SANTA BARBARA**  
PEUGEOT

Tailerrak: Larramendi 15 - Expo: Arantzazu 15  
Tel. 943 551 139 - Fax 943 551 152, 20120 HERNANI

#### AUKERAKO AUTOAK

Citroen AX Diesela - 5 ate	VI-L
Ford Escort Diesela	SS-AK
Ford Escort Familiarra Turbo Diesela	SS-AV
Ford Mondeo Turbo Diesela- Haize egokitua	SS-AV
Opel Astra Diesela 5 ate	SS-AT
Opel Corsa 'Don Algodon'	SS-AF
Opel Kadett 1.3 - 4 ate	SS-AH
Peugeot 205 Diesela - 5 ate	SS-AW
Peugeot 306 Turbo Diesela-Llantak-H.egokitua	SS-BB
Peugeot 405 Haize egokitua	SS-AP
Peugeot 405 SRI-Llantak-Haize egokitua	SS-AB
Peugeot 405 Turbo Diesela-Haize egokitua	SS-AG
Ford Courier Diesela - Lagundutako direkzioa	SS-AV
Citroen C:15 Diesel 'mixtoa'	SS-AH
Suzuki '4 X 4'	NA-V

eta beste hainbat, 100.000 eta 300.000 pta artean...

DO  
AST  
TREN BE  
Donostia-  
00:30, 1:0

OHARRA  
kin joan e  
rako z  
Donostiar  
eta biha  
baino lehe

AUTOBU  
(Garaiar,  
Donostia)  
Hernaniti  
1:45tara o  
Donostiat  
2:15etara

OHARRA  
Bartolon